ZUMAIAKO HILABETEKARIA

# BALEIKE

239. ZENBAKIA. EURO BAT
2015eko URTARRILA

www.baleike.eus

## AIREKO MEZULARIAK

**Soilik senari jarraituz, uso mezulariak ehunka kilometro egin eta beren usategira bueltatzeko gai dira.**

**Familia ugarik hazi dituzte uso hauek Zumaian. Gaur egun ere badira afizioa duten hainbat pertsona.**



INDUSTRIA ONDAREAREN PANELAK ZUMAIAN




**-%5**

**2015eko hasiera honetan Baleikeko bazkideek ENDAÑETAn %5eko deskontuarekin jarraituko dute.**




## AEG

**Garbigailua**

- 24 ordu aurretik programatzeko aukera
- Motor oso isila
- A+++ Eraginkortasun Energetikoa

**8 kg**

**1.200 bira/min**

**399€ ***

**8 kg**

**1.400 bira/min**

**449€***

**ENDAÑETA ZUMAIA**
**ELEKTROGAILUAK**
Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com

* Baleike Klubeko txartelaren %5 deskontua prezio honetan sartua dago.

# BALEIKE 239



A. Rubio Aprea

15

baleike +

## "BRUSELATIK ZUMAIARA EGUN BEREAN IRISTEKO GAI DIRA"


4
iritzia
OIKIAKO ESKOLA TXIKIA

7
elkarrizketa
ODOL EMAILEAK

23
erreportajea
PANELEZ PANEL ZUMAIAKO INDUSTRIA ONDAREAN ZEHAR

30
bertso sorta
UNAI GIJARRO



HERRI ALDIZKARIA
Foronda Kultur Etxea
Odieta, 2
tel.: 943 86 15 45
*e-maila:* aldizkaria@baleike.com
*Argitaratzailea*
Baleike Kultur Elkartea
*e-maila:* elkartea@baleike.com
*Administrazio batzordea:* Agustin Zubimendi eta Xabier Azkue.
*Erredakzio taldea:* Imanol Azkue, Ainara Lozano Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon Urbieta, Izaskun Urbieta eta Gorka Zabaleta
*Diseinua eta maketazioa:* Roberto Gutierrez
*Hizkuntz zuzenketa:* Imanol Azkue
*Publizitatea*
tel. 943 86 15 45
azubimendi@baleike.com
*Inprimategia*
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Tirada
800 ale
Lege gordailua: SS-405/94
ISSN: 1136-8594



Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.


TOKIKOM


Argitalpen honen edizioko laguntzaile:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

kutxa

kutxabank

# OIKIAKO ESKOLA TXIKIA

KOLARRE OIKIAKO GURASO ELKARTEA

Oikiako Kolarre Guraso elkarteak gure Eskola Txikiaren aldeko apustu garbia egin dugu, gure haurrak bertan matrikulatuz beraientzako ikaslekurik egokiena dela sinetsita.

Txikia izanik ere, gure auzoak bere nortasuna dauka. Euskara, natura, baserri giroa eta beste hainbat balio gordetzen ditugu altxor preziatu bailiran, aniztasunari uko egin gabe. Eskolak eta bere inguruko jarduerek auzoa bizirik mantentzen dute eta oso argi ikusten da horrelako ereduetan nolakoa den ikasleen arteko elkarlana, errespetua eta nola ikasten duten batak bestearengandik.



Normala den bezala, gure haurrak bertan hazi eta heztea nahi dugu. Helduok gure auzoarekiko izan dugun lotura beraiek ere izatea nahi dugu eta helburu hori gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa dugu hezkuntza baldintza duin eta egokietan eskaintzea. Gure ustez, eskola txikiak dira herri eta auzo txikietako bihotza eta herriaren alde lan egitea, besteak beste, gure Eskola Txikiari babesa ematea da.

Guk proiektu honetan sinesten dugu, baina ez da soilik gurasoen lana. Ezinbestekoak dira irakasleak, hezkuntza komunitate osoa, agintariak eta, nola ez, herritar guztiak, baina aspaldidanik arduratzen gaitu auzoko Eskola Txikia kokatzen den eraikinaren egoerak. Oso zaharkitua dago eta zerbitzua era duinean eskaintzeko trabak dauzkagu. Eraikina 1900. urte ingurukoa izan daiteke; bere garaian, beheko solairuan, ikasgela zegoen eta goiko solairuan auzoko maistraren etxebizitza zegoen. Gaur egun, beheko solairuan haur hezkuntzako gela bat eta erabilera anitzeko beste gela bat daude eta antzina etxebizitza izan zen goiko solairuan lehen hezkuntzako hiru gela, liburutegia (pasilloan), informatika gela (pasilloan), eta bulegoa daude. Ez dago haur txikiek lo egiteko txokorik, ez jangelarik, ezta gorputz hezkuntza edo soinketa egiteko lekurik eta aldagelarik ere. Eraikinarekiko ikusten ditugun arazo nabarmenenak, baina ez bakarrak, honako hauek dira:

- Garrantzitsuena eta larriena haurren segurtasuna ezin bermatzea da. Eraikinak dituen eskailerak (estuak eta malda handikoak) eta inolako larrialdietarako irteerarik ez izateak sute baten hipotesia aztertzerakoan kezka eta beldurra sentiarazten digu. Haurrek (eta irakasleek) ez lukete onik irteteko aukerarik izango eta txoritxoak kaiolan sartuta bezala geratuko lirateke.
- Eraikinak inola ere ez du irisgarritasuna bermatzen. Eskolara iritsi ahal izateko derrigorrezkoa da eskaileretatik pasatzea.

Eraikinaren antzinatasuna eta horrek dakartzan egitura eta ezaugarri teknikoak kontuan hartuta, urteak daramatzagu eraikin berri baten eskaerarekin. Puntu honetan, ezinbestekoa da agintarien eta administrazioaren laguntza eta 2003. urtean hasiera eman genion bide luze baten bukaerara iristen ari garela ikusten dugunez, egindako lanaren saria bertan dugula ikusten dugu.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak adierazi digunez, gure eraikin berria 2017. urtean eraikitzeko plangintza onartuta dago eta prozesu horri hasiera emateko, 2015. urteko martxoan hasiko dira proiektuaren esleipenerako beharrezko izapideekin. Horretarako, Zumaiako Udalak 2008. urtean hasitako lanari amaiera eman behar dio, hau da, eskola berria eraiki ahal izateko beharrezko lursaila bereganatu, eta ondoren, Hezkuntza Sailaren eskuetara pasa. Bidearen amaieran gaude; izan ere, Zumaiako Udalak Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala egin du lurra kalifikatzeko, lursailaren jabearekin akordio bat sinatu du eta orain lurraren jabetza eskuratzea bakarrik falta zaio.

2015. urteko martxoa bertan ikusten dugunez, prozedurari amaiera emateko falta diren pausoei buruzko informazioa eskatuz, Zumaiako alkate den Iñaki Agirrezabalaga jaunari batzar informatibo bat eskatu genion. Horrela, azaroaren 26an Oikiako Eskola Txikian bildu ginen eta bertan gure kezkak zein ziren azaldu ondoren, alkate jaunak hitza eman zigun Udalak datorren martxorako izapide guztiak amaituko zituela, hortik aurrera, Eusko Jaurlaritzak bere plangintzarekin jarraitzeko lursailak eskura izan ditzan. Hauteskundeetarako programan adierazi bezala, Udalarentzako lehentasunezko gaia dela berretsi digu eta hori oso berri pozgarria izan da guretzat.

Horrela, alkate jaunak agindu bezala, datozen hiru hilabete hauetan, Udalak lehentasunezko gaitzat hartzen baldin badu, eta egin beharreko izapideak egiten baditu, prozesu luze honi bukaera emanez, guretzat hain beharrezkoa den eskola berria izango dugu.

Ibilbide honetan, Udalak oso aldeko jarrera erakutsi digu eta benetan eskertzekoa da hori, baina, tamalez, badakigu asmo onak ez direla nahikoa eta lana gogoz egin behar dela izapideak aurrera ateratzeko, are gehiago gelditzen den epe laburra kontuan hartuz. Momentu edo egoera honetara iritsita, prozesua modu egokian amaitzeko giltza Udalaren esku dago.






Zumaiako Udalak bat egiten du urtarrilaren 10ean euskal preso politikoen alde egingo den manifestazioarekin.

Zatoz zu ere!

Zumaiako Udala






zumartian




www.zumartian.com

7 MARES
Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak
7 MARES Izoztuak
Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309

a3
Alai auzategia 8
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22
Kopiak eta materiala
tel./Faxa: 943 14 31 20
www.a3zumaia.com
a3@a3zumaia.com
a3 kopia eta diseinu zerbitzuak

Konponketak eta osagarriak
✔ Oinetakoen konponketak
✔ Zolen ordezkaketak
✔ Takoien, poltsen eta uhalen konponketak
✔ Kremailera aldaketak
✔ Botoiak, krisketak, zuloak
✔ Guraizeak, labanak, aiztoak... zorroztea
✔ Lan bereziak
AGEDITA
OINETAKOEN KONPONKETAK
Produktuen salmenta
Bame zolak, betunak, lokarriak...
Zunbilo, 8
Tel. 660 50 32 29

AIZPURUA
LIBURUDENDA
Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI
dekorazioa
696 726188
943 143261
• Eskaiola
• Pladur-a

Egin zaitez BALEIKEko bazkide
BALEIKE
GERRAKO BOST DESAGERTU AURKITU DITUZTE

ANA
ETXEKO ZAPIAK
Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157
anaetxekozapiak@telefonica.net

Egin zaitez BALEIKEko bazkide
BALEIKE
GERRAKO BOST DESAGERTU AURKITU DITUZTE

ILEAPAINDEGIA
D'Ana
Kantauri plaza, 6, behea
tel. 943 117 406

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA
www.ardantzabide.com
Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943 862 532
Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK
•Berokuntza sistemak
•Girotzea
•Iturgintza
•Energi berriztagarriak
•Eraginkortasun energetikoa
Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995
www.argisun.com
info@argisun.com

OKINDEGIA Arkupe
Nagusia, 2 - tel. 943 861 521
ZUMAIA
OGI-EDER

ARRUTI
Baltasar Etxabe z/g
Zumaia 943016429

ad
AUTOS ZUMAIA
Urola plaza, 3-5
tel. 943 861 485

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.
San Isidro, 25
20749 Arroa
tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net

Basadi albaitaritza
Albaitaria Iñaki Garmendia
Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadiclinivet.com
Goizez: 11-13 / Arratsaldez: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean itxita
Larrialdietarako: 605 728 707
Ebez etxeko zerbitzua

BASUSTA
erretegia · asador
José Blázquez
Patxita Etxezarreta, 25
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

Braky´s
Okindegia Kafetegia
Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tl.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289



# “Odol emaile asko dago, baina inoiz ez da nahikoa”

Gipuzkoan, egunero 50 pertsona inguruk beren osasuna hobeturik ikusten dute odol transfusioei esker. Batzuetan, gaixo horietakoren baten bizitza transfusioa jaso ahal izatearen mende dago; ebakuntza kirurgikoa egin behar diotelako, edo bere organismoak sortzen ez duen edo desegiten duen osagairen bat berrosatzeko. Transfusioak jasotzea denon eskubidea da, baina eskubide hori erabili ahal izateko, beharrezkoa da egunero 140 lagunek odola ematea.

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

“Zorionez, hemen inguruan ongi gabiltza odol emaileen kopuruari dagokionez, baina inoiz ez da nahikoa”, aipatu du Zumaiako odola ateratzeko saioa antolatzen duen Kontxita Etxabek. Berarekin, Maria Jesus Oyarzabal, Pepita Gurrutxaga, Mertxe Barandiaran, Mari Koro Aizpurua eta Anparo Uria dira azken 25 urte baino gehiagotan zeregin horretan dabiltzan emakume taldea. Bi hilabetetik behin, eta bigarrengo asteazkenean, ateratzen da odola Hogarrean.

> “Jendea etorri eta konpromiso serioa hartzen duen arte, hemen jarraituko dugu”

**Antolatzen hasi aurretik, odol ematen hasiko zineten, ezta?**
**Marije:** Bai, hala da. Nire kasuan, antolakuntzakoei laguntzen hasi aurretik odola ematen hasi nintzen. Baina gero, pixkanaka, orduko antolatzaileek ere laguntza behar zutela eta, taldean sartu nintzen.
**Pepita:** Horrela izan zen prozesua. Aurrena odola ematen hasi, nire kasuan 19 urterekin, eta gero, antolatzaileak uzten ari ziren heinean, gu laguntzen hasi.
**Zergatik hasi zineten odola ematen?**
**Kontxita:** Beharra zegoelako. Eta, gainera, nire semeetako baten istripu batek begiak ireki zizkidan. Odol asko galdu zuen eta 8 bat litro sartu zizkioten. Hor konturatu nintzen zer behar zegoen. Orduko odol emailea nintzen, baina gertaera haren ondoren, “Txortena”-nean denak egin ziren odol emaile. Ez bazen izan odolagatik, gaur egun semea ez zen bizirik egongo.
**Marije:** 70eko hamarkadan nire auzokidea zen antolatzen zuen pertsonetako bat, Margarita. Eta, beno, hari entzunda, odola ematen hasi nintzen.
**Antolakuntzarako pausoa eman zenuten 80ko hamarkadan.**
**Pepita:** Aurrekoak pixkanaka uzten hasi ziren, eta gu, berriz, ardura gehiago hartzen. Jarraipena eman genion, prozesu naturala izan zen.
**Kontxita:** Haiei ere pasa zitzaien guri pasatzen ari zaiguna. Edadean aurrera zihoazen, zereginak zituzten eta uzteko garaia iritsi zitzaien.
**Antolakuntzako zuen taldeko kideok batera hasi zineten?**
**Kontxita:** Ez, batera ez. Lehenengo Marije hasiko zen, eta gero beste guztiok, pixkanaka. Mari Asun Berastegi ere ez dugu ahaztu nahi, gurekin urte askoan lan egindakoa.
**Zein da zuen lana?**
**Marije:** Guk fitxategi bidez funtzionatzen dugu, nahiz eta sistema honekin jarraitzen duten herri gutxi geratu. Fitxategi horretan pertsona guztien datuak dauzkagu: zenbat aldiz eman duten odola, noiz eman duten… Fitxa horietatik, lau zerrenda osatzen ditut 25 izenekin eta horiei deitzen hasten gara. Beraz, emanaldi bakoitzerako 100 pertsonari abisatzen diegu, gutxi gorabehera. Lauron artean banatzen ditugu dei horiek.

Gero, egunean bertan, asteazkenean, erosketak egiten ditut, bertan, odola eman ondoren, boluntarioek zerbait jateko. Oso garrantzitsua da.



**Odol emaileak**

| berriak | guztira | gizonak | emakumeak |
|---|---|---|---|
| 17 | 210 | 107 | 103 |

**Odol emateak**

| saioak | guztira | gizonak | emakumeak | eman ezin dutenak |
|---|---|---|---|---|
| 6 | 394 | 210 | 184 | 10 |

## Odol emaileen elkartea

Zumaian, lehen odol emaileak 1970ean kokatzen badira ere, ofizialki 1972. urtean hasi ziren odola ateratzen. Garai hartan antolatzaile lanak Margarita Urteagak, Maria Dolores Alberdik, Beatriz Zarauzek, Arritokieta Manterolak, Antia ahizpek eta abarrek egiten zituzten. 1981. urtean, talde hartan aldaketak egon ziren eta pertsona berriek hartu zuten elkartearen ardura 8 urte geroago arte. Begoña Eguigurenek, Nieves Castrok, Matilde Martinezek, Nico Lopezek eta abarrek osatu zuten taldea. Momentu hartan, Marije, Pepita eta Kontxita ardurak hartzen hasi ziren. Ordutik gaur egun arte taldea handitu egin dute, Anparoren eta Mari Kororen laguntzarekin.

Urte horietako guztietako lanak saria izan zuen iazko sanpedroetako jaietan. “Urtero-urtero sanpedroetako danborradan herriko pertsona edo elkarte bati egiten diete omenaldia. Dirudienez, botazioa egiten dute eta iaz guri tokatu zitzaigun”, aipatu du Marijek. Oso pozik jaso zuten merezimendua.



*MARI ASUN BERASTEGI GOGOAN*
*Urte askoan lan asko egindako emakumea, elkarteko antolatzaileek asko eskertu dute bere lana.*

AINARA LOZANO

**Kontxita:** 16:00-16:30en hara joaten gara, eta dena prestatzen dugu. Gela atontzen dugu. Gero jaso egiten da, berriro dena zegoen bezala jarri eta hurrengo arte. Ez da lan handia, baina egin behar dena da. Arratsalde osoa da, bi hilean behin arratsalde bat hartu behar da.

**Erreleboa eman nahi duzue.**

**Kontxita:** Gero eta biloba gehiago ditugu, eta nahi edo ez, konpromisoa da lan hau egitea. Umeak zaindu behar ditugu, edo beraiekin egon…, eta denbora gutxiago daukagu. Arratsalde bat da, eta ahalegina egiten dugu umea beste norbaitekin uzten, baina beti ezin duzu hori egin.

**Marije:** Nik oraindik ez dut arazorik bihilabetetik behin arratsalde bat honetara dedikatzeko. Baina arazoa da guri zerbait pasa eta ez edukitzea norbait zeregin honetarako. Laguntzeko prest azaldu zaigu jendea, baina orain beraien artean hitz egin, adostu eta aurrera ateratzea falta da. Pixkanaka erreleboa ematen hastea da helburua.

> “Gizonezkoak 3 hilabetetik behin eman ahal dute odola eta emakumezkoek, berriz, 4 hilabetetik behin”

**Noiz ikusten duzue aldaketarako momentua?**

**Kontxita:** Jendea etorri eta konpromiso serioa hartzen duen arte hemen jarraituko dugu. Deseatzen gaude erreleboa emateko, baina konpromiso sendo eta firmeko jendea behar dugu.

**Zein kontseilu emango zeniekete berriei?**

**Kontxita:** Ez dela beste munduko gauza.

**Marije:** Urtean zehar sei aldiz antolatu behar den ekintza bat da.

**Anparo:** Baina konpromiso batekin etorri behar dutela. Antolatzen den egun horietan bertan egon behar duzu.

**Pepita:** Lau-bost pertsonarekin moldatzen gara, estu-estuan hirukin ere bai.

**Marije:** Kontua da bat odol emaileei ura

BEDUA ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA



-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMAILEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI
Erloju
eta bitxi denda
E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea
- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak
BERRITUA
Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

Egin zaitez BALEIKEko bazkide





ekin elektrizitatea, s.l.
Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com
Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet
BEEP DIGITAL+





V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA
orange
Orange
Portatilak eta mugikorrak konpontzeko zerbitzua
Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

ERROTA
ERROTA
OPIL-OKINDEGIA
SANTIXO AUZOA, 32
20750 ZUMAIA
TLF:943860000
943860612
FAX:943860977
errota@errota-okindegia.com

FLYSCH UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel: 943 11 63 97

Galdona
burdindegia
Mendaro marinela, 1
Juan Belmonte, 15
tel. 943 861 117 - 943 143 346
faxa 943 861 330

Ganbara
TABERNA
Zumaia
Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

garoa
kafetegia
Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

GLENCOE
INGELES AKADEMIA
4 PERTSONAKO TALDE MURRIZTUAK
Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 391 777
matrikulazioa dohainik!

GOIKO TABERNA
Erribera, 9 tel. 943 861 391

Egin zaitez BALEIKEko bazkide





Ikastegi homologatua
Goldən Gate
Institute
hizkuntz eskola
Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net



emateaz arduratzen dela gutariko bat, beste bat bokadiloak jartzeaz, beste bat garbitzeaz, beste batzuk txarteletan izenak ipintzeaz…

**Odola emateko lekua Hogarrean kokatuta duzue, baina tokiz aldatu zarete askotan.**

**Marije:** Hasi, Aita Mari zinemaren goian hasi ginen gu. Kamilla guztiak eskuz eramaten!

**Kontxita:** Orain baino sasoi hobea ere bagenuen!

**Marije:** Garai hartan josteko kurtsoak ematen ziren han, eta hor ibiltzen ginen makina denak alde batetik bestera mugitzen gure tresnak jartzeko. Ludotekan ere egon ginen denboraldi batez. Ez zen oso komodoa. Eskailera zegoen aurrena eta… Gero handik Oxfordera joan ginen. Ondoren Urbanismora, Amaiako plazaren atzean Udalak duen lokalera. Azkenik, orain gauden lekura etorri ginen, Hogarrera.

**Oraingo tokiarekin gustura zaudete?**

**Anparo:** Bai, herriaren zentroan dago eta eskailerak dituen arren, igogailua dago. Horretaz gain, komunak ere bertan daude, medikuarentzat despatxoa, itxaroteko gela ere bai… Ederki dago.

**Propaganda gutxi egiten duzuen kexa entzun da.**

**Kontxita:** Egunkarian etortzen da, eta mezetan ere esaten da. Baina, noski, gazte jendea elizara ez da joaten. Taberna batzuetan ere jarri izan dugu.

**Anparo:** Egia esan, arduraduna zeuk izan behar duzu. Gutxi gorabehera jakin noiz ematea tokatzen zaizun. Gizonezkoak 3 hilabetetik behin eman ahal dute eta emakumezkoek, berriz, 4 hilabetetik behin.

**Odola ematen duten zumaiarren kopurua nahikoa al da?**

**Kontxita:** Azaroko saioan 69 pertsona etorri ziren guztira.

**Marije:** Zumaiako batez bestekoa 70 pertsonakoa da, gutxi gorabehera. Ezin da jakin, batzuetan 90 etortzen dira eta beste batzuetan 60.

> "Gazte jendea behar da. Antolakuntzan erreleboa nahi dugun moduan, odolean ere erreleboa egotea garrantzitsua da"

## Loiolako asanblada

Odol emaileekin osatutako festa ospatzen dute urtero urriko azkeneko igandean Loiolan. "Pertsona bati 25 donazio egindakoan zilarrezko domina ematen zaio. Gero, urrezko medaila jasotzeko, emakumezkoek 40 aldiz eman behar dute eta gizonezkoek 50 aldiz. Azkenik, Odol Emaile Handia deitzen den aipamena dago. Emakumezkoek 60 aldiz emanda lortzen dute eta gizonezkoek 75 aldiz emanda", esan du Pepitak.

Azkeneko urteetan, Loiolan finkatuta dute zeremonia da hori, eta bertan Urola Kostako odol emaileak elkartzen dira. Aurretik, ordea, Zumaian antolatu zuten behin. "Maria Eugenia [Arrizabalaga] alkate zela antolatu zen hemen, eta Montse Arana ere gonbidatu genuen. Esan behar da asko lagundu izan digula beti Montsek. Egun hartan elizkizuna egin genuen, eta gero Marina Berrira joan ginen jatera. Egun ederra pasa genuen", gogoratu dute.

**Pepita:** Gazte jendea behar da. Antolakuntzan erreleboa nahi dugun moduan, odolean ere erreleboa egotea garrantzitsua da. Odol berria, osasuntsua behar dugu. Betebehar bakarrak bi dira: 18 eta 70 urte bitartekoa izatea eta 50 kilo baino gehiago pisatzea.

**Jendeak odola emateko denbora luzez itxaron behar izaten du normalean. Zer soluzio dauka?**

**Pepita:** Beti horretaz jarduten dugu jendearekin hitz egiten, baina… Guk ezin dugu ezer ere egin. Gehiago ez direla etorriko esanez hasten dira batzuk. Hori norberaren esku dago, erabat boluntarioa da.

**Marije:** Ez dauka soluziorik. Medikuarenetik pasatzen zara aurrena, galdera batzuei erantzuteko; orduan, nahitaez luzatu egiten da itxaroteko denbora. Gero, odola emateko garaian, guztiek ere ez dute erritmo bera, norbait mareatu bada kamilla denbora gehiago egoten da… Azkenean gauza horiek guztiek luzatu egiten dute itxaroteko denbora. Boluntarioa da, eta, beraz, norberaren aukera da etortzea edo ez.

**Merienda ederra jartzen duzue.**

**Marije:** Saiatzen gara denen gustukoa izaten. Gogoratzen naiz sekula bokadilorik jaten ez zuen pertsona bat zegoela. Esan zigun begetarianoa zelako ez zuela jaten. Handik aurrera gazta ekartzen hasi ginen.

**Guztiak mimatzen dituzue, beraz.**

**Kontxita:** Saiatzen gara. ■

# ONURA FISIOTERAPIA ZENTROA

Aita Mari 42, Zumaia • 943 245 450

onura fisioterapia zentroa

DUELA 10 URTE IREKI ZITUEN ATEAK ONURA FISIOTERAPIA ZENTROAK, ETA GAUR EGUN OSASUNAREKIN LOTUTAKO ARLO DESBERDINAK LANTZEN DITUZTE BERTAN. ESPERIENTZIAZ ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAZ BALIATUZ, TEKNIKA ETA TRATAMENDU BERRITZAILEAK APLIKATZEN DITUZTE PERTSONEN OSASUNEAN ETA BIZITZAN ONURAK LORTU AHAL IZATEKO.



## FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Fisioterapian prestakuntza egin ondoren osteopatian trebatu dira Naiara Berezibar eta Amaia Zubimendi, eta horrek gorputza osotasunean ikusteko eta tratatzeko aukera eman die.

"Gorputzean azaltzen diren sintomak edo minak gorputzaren espresio bide moduan ulertzen ditugu, ez arazoaren sorburu moduan. Gorputzean sortzen diren blokeo edo disfuntzioak askatzen ez baditugu, denborarekin minak azalduko dira gorputzeko beste atal batzuetan. Askotan, sorburutik urrun".



Hasierako disfuntzio horiek normalean ez dira oso nabarmenak izaten; beraz, pertsonak kasu gehiegi egin gabe bere bizitzarekin jarraitzen du. Baina denborarekin minak azaltzen hasten dira gorputzeko beste atal batzuetan. "Min horiek intentsuagoak dira eta eguneroko bizitza zailtzen dute. Sorbururaino iristea garrantzitsua da hasierako blokeo horiek lokalizatu eta askatzeko, eta ondorioz, pertsonaren sintomatologia hobetu eta mina desagertu egiten da".

Ikuspegi horrekin lan egitean, beste helburu bat ere bilatzen dute: "Pertsonen barne egoera hobetzea, kanpoko exijentzia edo estresei erantzuteko gaitasun handiagoa izaten delako".

Osteopatiaren bitartez sintomatologia oso ezberdinak tratatu eta hobetu daitezke. Fisikoak: bizkarreko minak, sorbalda eta aldakako minak, sabeleko minak, digestio astunak, buruko minak eta migrainak, ekzemak eta azaleko arazoak... Edo psikikoak: antsietate prozesuak, lo egiteko zailtasunak, urduritasuna, nekea...

Pertsonen adin eta bestelako ezaugarrietara egokituta daude beraien tratamenduak.





## DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

Egungo gizartean hainbat arazo azaltzen ari dira elikadura ohitura desegokien ondorioz. Oro har, gehiegi jaten da eta aldi berean nutrizio gabezia handiak ditugu.

Helena Albizu dietista eta nutrizionistaren arabera, gakoa prebentzioan (mutrizio heziketan) dagoen arren, “patologia edo egoera fisiologiko (haurdunaldi, zahartzaro, nerabezaro…) konkretu bat izanez gero, dietoterapia edo nutrizio tratamendua ere beharrezkoa da”.

Tratamenduan eredu eta heziketa egoki, pertsonalizatu eta seguruena emateko, pazientearen nutrizio analisia egiten da bere gorputz konposizioa, elikadura ohiturak, gustuak eta abar kontuan izanik.

“Beste alde batetik, kirolariei zuzendutako elikadura lantzen dut. Izan ere, errendimendu egokia izateko beharrezkoa izango da nutrizio beharrak asetzea eta askotan ez dira betetzen, batez ere hor zehar dabiltzan hainbat mito direla eta. Paziente horiekin jorratuko dudan heziketa ezberdina izango da, osasuna bermatuz, epe motz eta luzeko errendimendua oso presente izaten delako”.



## LOGOPEDIA ETA PEDAGOGIA

Mintzaira edo hizkuntza arazoak, dislexia edo eta irakurketa/idazketa atzerapenak, ahots arazoak, toteltasuna, irenste atipikoa, afasiak, ikasketa teknikak… lantzen ditu bere egunerokoan Judith Ruiz de Gaunak.

Adin guztietako jendeak lortzen du hobekuntza diagnosi sakona egin eta haren eta pazientearen ezaugarrien araberako tratamendua aplikatuz. Bakarkakoa izaten da, eta teknika eta formatu ezberdinak erabiltzen dira: ordenagailua, tabletak, betiko jolasak, ipuinak…

“2-3 urteko ume batek hitzik esaten ez badu (edo hitz gutxi), 2 hitzeko esaldiak egiteko gai ez bada, keinuez komunikatzen bada, kontuan hartu beharreko seinaleak dira. ‘Hitz egingo du’ edo ‘Lasai egon’ bezalako aholkuak, printzipioz, ez zaizkit egokiak iruditzen. Espezialista baten iritzia jasotzea garrantzitsua iruditzen zait etorkizunean azal daitezkeen arazoak ekiditeko”.

Hizkuntzaren garapen egokiak umeari auto-estimua, autonomia eta segurtasuna ematen dizkio. Funtsezkoa da bere maila kognitiboa, soziala, emozionala eta komunikatiboa zuzenduko baitizkio.



Gure-Txokoa
taberna
Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School
...eta udaran ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com
San Jose, 11 bis
tel. 943 143 334

API
Ibaigain
inmobiliaria
Txomin Agirre 4, behea
elena@ricardoazcue.com
tel. 615 793 406 / 943 862 651
fax: 943 862 748
www.ibaigain.com

ilargi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE ELKARTEA
Erribera kalea 16.
Tel. 943 861 523

Iriondo
Optika
Kantauri plaza, 8. Zumaia. Tel. 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. Tel. 943 85 19 84

IRUITZ
Ileapaindegi Mistoa
San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIAK
Angelo Sorara, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa. 943 430 637

Itzurun, S.L.
Aroztegia
Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotratuak...
Itzurun Zuhaizbidea, 2 behea
Tel. / Fax: 943 86 15 65

IZ ZE ET TA
ORRAZTEGIA
ZUMAIA
943 862 083

JUARISTI
jatetxea
Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua
Basadi auzategia, 10
tel. 943 05 05 77

Egin zaitez
BALEIKEko
bazkide
BALEIKE
GERRAKO BOST DESAGERTU AURKITU DITUZTE

KABI'
TABERNA
Patxita Etxezarreta, 15
943 117 427

Kaithermik S.L.
Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak
Santiago auzoa, 20
Tel./faxa: 943860320

kalari
Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

PAPER diseinu grafikoa
Roberto Gutierrez
696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

Kresala
Taberna
Julio beobide 3, tel. 943 019 869



# “Bruselatik Zumaiara egun berean iristeko gai dira”

TESTUA: IZASKUN URBIETA
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Inongo GPS edo sistema teknologikorik gabe, soilik instintuari jarraituz distantzia luzeak egiteko gai dira uso mezulariak, eta horrek jabeak pozik eta harro jartzen ditu.

Erdi Aroan pertsonen arteko komunikazioa errazteko erabiltzen ziren usoak. “Horretarako, hankan lotutako pote txiki batean mezu bat sartzen zen eta behar zuten tokira joaten ziren”, esan du Manuel Urbietak. Berekin dira Juan Larrarte eta Julian Eguiguren usozaleek. Potentzialtasun hori gizarte modernoan ere aprobetxatu izan da. “Militarrek, esaterako, beraien estrategien barruan erabili izan dituzte usoak. Iparramerikarrek adibidez, Golkoko gerran, elkarrekin komunikatzeko usoak erabili zituztela aitortu zuten”. Gaur egun, usoen heziketak beste norabide bat hartu du. Komunikazio kanala izateaz gain, kirolera ere bideratu baitira asko.



USOZALEAK

*Manuel Urbieta, Julian Eguiguren eta Juan Larrarte.*

Juanen hitzetan, “Eboluzionatzen doan arraza bat da. Hasieran 20 kilometroko distantzia egitera behartzen zituzten; orain, aldiz, gero eta distantzia luzeagoak egiteko gaitasuna dute. Espeziea hobetzen doa. Pentsa, 1.000 kilometro egiteko gai dira lehiaketa luze batean, eta irabazten duen usoarengatik milaka euro ordaintzen du jendeak”.

Arraza beraren eboluzioaz gain, belaunalditik belaunaldira usoak hobetu egin dira. Hain zuzen, geneek eta jatorriak eragina dute hurrengoengan. “Konturatu gara ibilbide batean uso zehatz bat ongi ibili bada, bere kumea oraindik eta hobeto ibiltzen dela. Hori bai, ibilbidez edo orientazioz aldatzen baduzu, ez du hainbesteko gaitasunik erakusten”, adierazi du Manuelek.

> “Konturatu gara ibilbide batean uso zehatz bat ongi ibili bada, bere kumea oraindik eta hobeto ibiltzen dela”

Batez beste 70 km/orduko abiaduran egiten dute hegan, baina haizearen norabidearen arabera aldatu egin daiteke datu hori. “Haizea aurka badute, abiadura murriztu egiten dute eta 60 km/ordura jaitsi. Aldiz, aldeko haizearekin, 90 km/ordura hegan egitea irits daitezke”, kontatu du Juanek. Adibide bat ere gehitu dio datu honi. “Normalean, usoak goizeko 06:00ak aldera jaurtitzen dira, eta iaz 700 kilometro baino gehiagoko lasterketa batean, arratsaldeko 16:00etako etxean nituen. Inoiz ez zitzaidan gertatu hain azkar usategian izatea”.

Uso mezulariak normalean urtarriletik maiatza edo ekaina bitartean jaiotzen dira. “Usakumeak hilabete tarte honetan jaiotzea garrantzitsua da, bestela ez baitie lumaz aldatzeko denborarik ematen”, esan du Manuelek. Udazkena izaten da lumaz aldatzeko garaia eta lumak behar bezala izatea garrantzitsua da usoak hazteko. “Lumak zenbat eta garbiagoak eta flexibleagoak izan, hegaldietan orduan eta esfortzu txikiagoa egin behar dute; beraz, txukun izatea gomendagarria da”, gaineratu du.

Horretarako, bainuak hartzen dituzte. “Beraien kasa bainatzen dira. Bainuontziak jartzen dizkiegu eta beraiek nahi dutenean bainatzen dira, euria edo elurra egin. Gainera, ez dugu jakiten noiz egiten duten, eta guk nahi dugunean ez dira bainatzen”, esan du Julianek.

“Nik badut horretarako trikimailua”, aipatu du jarraian Juanek. “Uso bat egun batzuetan giltzaperatuta izaten baduzu bere kaiolatxoan, beste guztiekin batera jartzen duzunean, bainatzeko gogo handia izango du. Hala, bainuontzian sartuko da eta beste guztiek jarraitu egingo diote. Ondoren, kanpora ateratzen dira lehortzera; eguzkitan jartzea asko gustatzen zaie eta hegoak zabalduta jartzen dira”.

## Kulturaren parte

Usozaletasuna usoen heziketa eta irakaspena barne hartzen duen kirola da. “Europa mailan kirol moduan definitzen dute, baina hemen, Euskal Herrian, kulturaren parte bezala hartzen gaituzte”, esan du Juanek.

Frantzia, Belgika eta Ingalaterra bezalako herrialdeetan kirol ospetsua da hau. “Jende askok egiten du, eta usoak heztetik bizi direnak ere badira”, aipatu du Manuelek. Oso ondo antolatuta dute dena, eta lehiaketak egiteko garaian Frantziako usozaleekin elkartzen dira. “Beti Brusela, Lille eta Tolosa (Frantzia) bezalako herrietatik ateratzen dira gure usoak, horiek dira erabiltzen ditugun abialekuak”, kontatu du.

Hori egiteko arrazoiak bat baino gehiago dira. Alde batetik, paisaiaren ezaugarriak daude. Frantzia eta Belgika aldera mendi gutxiago daude, nahiz eta Pirinioak bertan izan. “Horretaz gain, Espainia hegoalderantz joanez gero, belatzekin topa daitezke eta izugarrizko kalteak eragin: ebakiak,





## Tradizioa Zumaian

Zumaian familia askok hazi eta hezi dituzte uso mezulariak. 1950. urte ingurutik datorren zerbait da. "Guztira 10 bat familia izango ziren herrian uso mezulariekin jardu-ten zutenak: apeztegiatarrak, alberditarrak, etxabetarrak, olaizolatarrak, eguigurendarrak…", gogoratu du Julianek. Urte haietan, artean, umea zen Julian, baina oroitzapen gutxi batzuk gordetzen ditu oraindik. "Uste dut Belgikatik uso mezulari bat azaldu zela Zumaian, eta horrela hasi zela pixkanaka sortzen afizioa", aipatu du.

Kuriositate moduan, uso hauek eta militarrek izan duten harremanaren ondorioz, herriko 2-3 gaztek soldaduska Zumaian bertan egitea lortu zuten. "Bai, hala da, usoak zaindu eta heztearen baimenarekin, soldaduska herrian egin zuten", esan du. Ondoren, asteburuetan, trenean Burgos eta Miranda de Ebro aldera joaten ziren usoak kaiolan sartu eta lehiaketetan parte hartzera.

2010eko otsailean usoen lizentziak ejertzitoaren eskumenetik atera ziren. "Ordura arte, genituen uso guztien berri eman behar genien; izan ere, beraien ikuskapenaren barne sartzen zen uso mezularien kontrola. Orain datu guztiak Usoen Federazioari ematearekin nahikoa da, beste arautegi baten barnean gaude kokatuta", kontatu du Julianek.

Gaur egun usoenganako afizioa mantentzen da Zumaian. "Manuelek Itziarren ditu usoak; Juanek, Hondarribian, han bizi delako; eta, nik, Artadi aldean. Baina beste hainbatek ere badute usategia. Olaizolak Agerre baserrian du, Vallejok Endañeta inguruan, Silva anaiek Ortiz fabrika zaharraren gainaldean…", amaitu du.

zauriak…”.Beste alde batetik, arrazoi ekonomikoak daude. “Frantziarrekin elkartuta errentagarriago ateratzen zaigu. Han usozale asko daude, eta gastuak denon artean banatzen ditugu, horregatik merkeago ateratzen zaigu”, kontatu du Juanek. Gainera kamioiaren gastuak daude. “Usoak kamioian garraiatzen ditugu, eta normalean elkarte bakoitzak berea du; bestela, oraindik eta garestiago aterako zitzaigun. Baina, noski, kamioaren gastua joan-etorriko bidaia da, nahiz eta buelta hutsik egiten duen”. Horrelako bidaia batean uso bakoitzarengatik ordaintzen dute. “Euro bat edo zerbait gehiago balio du uso bakoitzak lehiaketa batean parte hartzeak, eta askatzen dugun bakoitzean (astero izaten da), 40-45 uso eramaten badituzu, imajinatu nolako gastua izan dezakegun”, aipatu dute.

### Bidaia planak

Urte hasieran frantsesekin kontaktuan jartzen dira hemengo elkarteak. Ordezkari bat bidaltzen dute bilera batera eta bertan urte horretako hegaldi planak antolatzen dituzte. “Zehazki, urtarrila eta otsaila bitartean definitzen ditugu bidaiak; gero, apiriletik aurrera askatzen hasteko”, kontatu du Juanek.

> “Frantziarrekin elkartuta errentagarriago ateratzen zaigu. Han usozale asko daude, eta gastuak denon artean banatzen ditugu”

Lehiaketak 4 kategoriatan banatzen dira: abiadurakoa (300 kilometro artekoa), iraupen erdikoak (300-500 kilometro artean), iraupenekoa (500-700 kilometro artean) eta iraupen luzekoa (700-1.100 kilometro artekoa). Kategoria bakoitzeko lasterketak hilabete jakin batean izaten dira. “Apiriletik uztailera arte askatzen dira”, kontatu dute Julianek Lehendabizi, lasterketa motzak egiten dituzte, abiadurakoak eta iraupen erdikoak. Ondoren, ekainean, iraupenekoak egiten dira eta uztailean iraupen luzekoak. “Usozaletasunean hasiberriak direnentzat lasterketa motzak dira egokienak. Guretzat, urte asko daramatzagunontzat, motzak entrenamendu gisa hartzen ditugu. Gure helburua luzeetan ondo ibiltzea izaten da”, aipatu du Juanek.

Lasterketetara joateko bidaia kaxetan egiten dute usoek. Julianek, Juanek eta Manuelek hainbat kaxa dituzte beraien txokoan gordeta. Guztiak beraiek eginikoak dira eta garbitasunari garrantzi handia ematen die. “Higienea behar-beharrezkoa da, astero-astero garbitzen ditugu, bidaia bakoitzaren ondoren”, esan du Manuelek.

Kaxa guztiak prezintatuta joaten dira lehiaketetara. Kamioian bata bestearen gainean ipintzen dituzte eta gidariaz gain, laguntzaile batekin joaten dira uso guztiak. “Denbora bat pasa ondoren derrigortuta daude gelditu eta usoei jaten eta edaten ematera”, aipatu du Manuelek. Hala ere, janariarekin arduratsu jokatzen dute. Izan ere, asko jaten badute, digestioa egitean egarri asko etortzen zaie eta hegaldian doazenean geratu egiten dira uraren bila. “Beraz, arin joateko jan gutxi ematen zaie, baina ura berriz, asko. Gainera, horretarako edukiontzi espezialak izaten dituzte kaxetan”, aipatu dute.

Lehiaketaren arabera, uso gehiago edo gutxiago sartzen dituzte kaxen barruan. “Motzetan, 24 uso sartzen ditugu, gutxi gorabehera, eta luzeetan, aldiz, 15-16”.

Uso batek lehiaketa irabazteko, ez du nahikoa bere usategira iristearekin. “Teilatuan jartzen bada, ez du balio. Usategiaren barrura sartu behar du, eta han dagoen kontrolagailutik pasa. Hori baita denbora kalkulatzen duen tresna”, esan du Julianek. Gero, datu guztiak ordenagailura deskargatzen joaten dira, eta bertan, formula baten bidez, azkarren etxera bueltatu den usoa zein izan den jakiten dute.

Usategiak GPS sistemarekin hartuta daude, zein koordenada dituen badakite txapelketako arduradunek eta usoak irten diren lekuko koordenatuak hartu ondoren, ordenagailuan datuak sartu eta biderik zuzenena zein den jakiten dute. “Baina, noski, usoak ez dira zuzen joaten, oso zaila da hori egitea”, adierazi dute.

**▼ IBILBIDEAK**

*Brusela, Lille eta Tolouse bezalako hirietatik abiatzen dira uso mezulariak lehiaketetan.*





## Eraztunen inguruko bitxikeria

Usakumeei, jaiotakoan, eraztun itxi zenbakidun bat jarri behar zaie. "Usoen NAN zenbakia bezalakoa da", adierazi dute. "Gainera, jaio ondorengo 9 eta 12 egun bitartean ipini behar zaie", esan du Juanek. Behin eraztuna jarrita duenean, ezin izaten zaie kendu, "behatzak hazten zaizkie eta eraztuna jarrita hiltzen dira".

Uso bat mezularia bezala kontsideratzeko, eraztun itxia izan behar du. "Bestelako hegaztiek eraztun irekiak izaten dituzte, baina uso hauei itxiak jartzea derrigortuta gaude", kontatu du Juanek.

Eraztunak Belgikatik ekartzen dizkie federazioak. 2014an, Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik, 5.500 eraztun eskatu ziren. "Guk, adibidez, gure elkarteak, 1.000 eraztun eskatu genituen eta batere gabe geratu ginen".

Normalean, zuzenen etortzen den usoa izaten da irabazten duena. "Zuzenago joanda, bidea motzagoa egiten da. Badaude azkarragoak diren usoak, baina ez badira zuzen joaten, ez dute irabazten. Batzuetan bide luzea egin behar dute derrigorrez haizeagatik, mendiengatik, belatzak ikusi dituztelako…", esan du Juanek.

### Instintuaren garrantzia

Hirurek familiatik datorren afizioari edo animalienganako duten maitasunagatik eman diote jarraipena kirol honi. Julianen kasuan, esaterako, aitak erakutsitako bideari segitzea pentsatu zuen. "Gure aitak usategi bat zuen, Paolbidean. Urte askoan Donostian bizi ondoren, Zumaiara bueltatu nintzen, eta lekua nuenez, afizio horrekin jarraitzea pentsatu nuen. Orain, Artadirako bidean kokatuta dut usategia. Guztira, 12 urtez nabil usoen gai honekin".

Manueli eta Juani, berriz, txikitatik datorkie animalienganako zaletasuna. "Amonak erakutsi zidan animalienganako maitasuna eta dagoeneko 50 urte baino gehiago daramatzat usoekin", esan du. Hasieran ikasketa prozesua zaila egin zitzaiela kontatu dute. "Saiatzen eta galerak izaten ikasten da ondoen. Orduan jakiten duzu zerbait gaizki egiten ari zarela", esan du Manuelek. "Perfekzioa bilatzea da helburua", jarraitu du Juanek. Behatzailea eta konstantea izatea dira usozale on batek behar dituen ezaugarriak. "Gaian sakontzen duzun heinean, usoak gehiago ezagutzen dituzu, bakoitza zein den, zein akats dituen… Hor dago sekretua", amaitu du Juanek.

> "Normalean, zuzenen etortzen den usoa izaten da lehiaketa irabazten duena"

Perfekzio hori bilatzeko, ordea, entrenamendu saioak egiten dituzte. Egunero joaten dira usategira, eta entrenamendu garaietan bitan edo hirutan ere bai. "Lanera joan baino lehenago uso talde bat askatzen dut. Goiz erdian, tailerretik irten eta beste taldetxo bat. Etxera joan baino lehen, beste bat, agian. Eta hori asteko 7 egunetan, jakina. Emaitzak lortu nahi dituenak badaki zer egin behar duen. Irabazteak ez digu hainbeste axola, egia esan, baina gure arteko burlak eta ziriak ez jasotzeko lan asko egin behar dugu", kontatu du barrez Manuelek. Juanek zehaztasun bat egin du orduan: "Aurreneko saiakeran usoak etxera etortzearekin konformatzen ginen. Baina, orain, aldamenekorena baino lehenago iristea nahi izaten dugu", barrez.

Entrenamenduetan usoen instintua lantzen dute, batik bat. "Instintua usoak berak eduki behar du. Nagusiak egiten duena instintu hori perfekzionatu. Hori ez balitz landuko, galdu egingo lukete", esan du Juanek. Lehiaketak, hain zuzen, horretara daude bideraturik. Zenbat eta gehiagotan parte hartu, orduan eta gaitasun handiagoa izango dute.

### Motibazioa aurkitzea

Uso hauen eta jabeen artean dagoen harremana estua da. Bien artean sortzen den erlazioa oso indartsua bihurtzen da. "Usategi zaharrari edo aurreko nagusiari dion maitasuna handiagoa da berriari diona baino. Eta, gainera, ez diozu urtetan kenduko. Pentsaezina da, baina horrela da", esan du Juanek. Gainera, usategi zaharrera bueltatuz gero, beste usoen artean borroka egingo du bere lekua zena berreskuratzeko.

Hain zuzen, horrelako trikimailuak erabiltzen dituzte usozaleek usoen motibazioa handitzeko. "Artista izan behar duzu usoei motibazioa aurkitzeko, baina hori ere gure lanaren zati bat da", esan du Juanek. Motibazio hori lehiaketetan etxerako buelta azkarrago egiteko erabiltzen dute.



Juanek kontatzen duenez, "Arrak hobeak dira, orokorrean. Gorputz sendoagoa dute, fuerteagoak dira. Baina imajinatu eme bat lasterketa batera bidali duzula usategian 3-4 egun dituzten usakumeak han utzita. Ez dago arrik, onena izanda ere, eme horri irabaziko dionik. Motibazioa ezberdina da, eta hor dago sekretua. Hori bilatzea da gure lana".

> "Artista izan behar duzu usoei motibazioa aurkitzeko, baina hori ere gure lanaren zati bat da"

Erabiltzen duten beste truko bat uso zaharren eta gazteen arteko lehia izaten da. "Txapelketara bidali behar duzun uso zaharrari bere kaiolan gazteago bat sartzen diozu 2-3 minutuz. Borrokan hasten dira eta ondoren zaharra hartu eta lehiaketara bidaltzen duzu. Zer gertatzen da? Zaharrak buruan duela bere lekuan gazte bat geratu dela, lekuaren jabe. Uso horrek etxera bueltatzeko duen gogoa izugarria izaten da", azaldu du Manuelek.

### Usoak zaintzea

Diputazioak gauza asko exijitzen dizkie. "Euskal Herrian ardiak baino uso gehiago daude, baina gurea ez da plaga bat, kontrolatutako animaliak dira", esan du Manuelek. Hori dela eta, lizentzia eta ziurtagiri guztiak egunean izan behar dituzte. Animalia bizidunen garraiorako lizentzia, albaitariaren ziurtagiria, Diputazioaren arauak, usategia kokatuta dagoen udal bakoitzaren betebeharrak…

Dokumentu horiez gain, txertoen kontua dago. "Usoek behi eroek harrapatu zuten gaitzaren antzekoa izan dezakete; horregatik, denak txertoa jarrita izaten ditugu", kontatu du Manuelek. Newcastle izeneko txertoa ematen diete urtero, eta hori hartu gabe harrapatzen badituzte, izugarrizko multa izan dezakete Frantziara pasatzen direnean. "Animalientzat gaixotasun oso kutsakorra da newcastlerena eta albaitariak txerto hori eman gabe harrapatzen bazaitu, Diputazioari esatera derrigortuta dago. Hori gertatuz gero, uso guztiak hil egin beharko genituzke", adierazi dute.

Janariari dagokionez, garaian garaiko elikadura emateaz arduratzen dira. Usakumeak direnean proteina asko ematen dizkiete; hegaldiekin hasten direnean, berriz, hidrato asko: artoa, zereala… "Kaloriak izan ditzaten leguminoso asko ematen dizkiegu. Baina horrek arazoak ere ekar ditzake. Asko emanez gero, kolesterola ateratzen zaie".

Deskantsuan daudenean, azarotik otsaila arte, garbiketarako tartea hartzen dute usoek. "Ur asko edaten dute hilabete horietan, eta glukosa eta garagarra ere jaten dute. Elikadura beti zaindu behar da", adierazi du Juanek.

Elikaduraren gaiari lotuta, dopinaren kontua aipatu dute. Ba al dago dopinik usoen mundu honetan? Kasuren bat atera dela kontatu dute. Belgikan, kokaina arrastoak zituen uso bat aurkitu zuten. Horrek, ordea, Nazioarteko Federaziotik, uso guztiek kontrol zehatzak pasatzera derrigortzea ekarri du. "Guk beti garbi jokatzearen alde egin dugu apustu. Gure elkartean 16 pertsona gaude eta denon artean ederki eramaten gara. Lehia zenbat eta maila paretsuagoan egon, orduan eta politagoa dela iruditzen zaigu. Beti berdinak irabazten badu, ez du grazia askorik. Hasiberriei ere saiatzen gara aholku onak ematen. Ilusio askorekin etortzen dira, eta lehenengo urteetan dena galtzen badute, afizioa uztea dakar horrek, dirua galtzen duzulako eta beti berdinak irabazten dutelako. Eta hori ez da gure nahia", esan dute Juanek. ■

## BAZKIDE KLUBEKO ABANTAILAK




Txartel berriarekin **hamaika abantaila** dituzue Zumaiako denda, taberna, jatetxe eta negoziotan. Hemen zerrenda:

***Rosi garbiketak***
Hilabeteko lehen ostiralean %10eko deskontua edredoi eta mantetan.

***Arruti arropa denda***
%5eko deskontuak abenduan erosketa guztietan. Ez da bateragarri izango beste deskontuekin.

***Maiaur***
Abendua eskeintza bereziak etxeko izozkietan.

***Xumai kirolak***
%5eko deskontua produktu guztietan.

***Yoana ileapaindegia***
Depilazioak %10 merkeago. Hilean behin, bazkideen artean zozketa ilea garbitu eta orraztu debalde egiteko.

***Endañeta elektrogailuak***
%5eko deskontua kontrazaleko iragarkian ageri diren produktuetan.

***Ertz informatika***
Ordenagailu eramangarria eta jokoak erostean %5eko deskontua. Ordenagailu eramangarrien konponketan %5eko deskontua.

***Tximista taberna***
Astearte eta asteazkenetan, inportazioko bi garagardo ordaindu eta hirugarrena doan.

***Juanjo harategia***
10 eurotik gorako lehen erosketarekin, ardo botila opari. Bazkide txartelaz gain, aldizkarian argitaratuko den kupoia erakutsi beharko da.

***Basusta Erretegia***
Astelehenetik ostiralera, kartako bazkariak %10 merkeago.

***Flysch-Uzkudun taberna***
Eguneko menuarekin, kafea debalde.

***Iratxe Plazaola***
Sei hilabetez, asteazkenetan errebisioa eta aho eskubila doan. Bazkideak eta beraien bikote eta seme-alabek balia dezakete eskaintza, bakoitzak behin.

***Marina kafetegia***
Bost pizza erosita, seigarrena doan. Txartel bana jasoko da erositako ale bakoitzeko, eta bost osatutakoan, pizza baten truke aldatzeko aukera izango da.

***Egoki erlojudenda***
%10eko deskontua erlojuetan, eta urre edo zilarrezko bitxietan. Deskontu hau ezin zaie beste eskaintza batzuri gehitu.

***Zalla taberna***
Udazkenean, kafea euro batean.

***Nikol taberna***
Ostegunetan lehen garagardoa euro batean.

***Ana zapiak***
%5eko deskontua produktu guztietan.

***Basusta loredenda***
Azaroaren 3tik martxoaren 12ra, %10eko deskontua 25 eurotik gorako erosketa eginez gero, hileta eta ezkontza zerbitzuak ezik.

***Kabi taberna***
Garagardo kaña 1,5 euroan.

***Juaristi jatetxea***
Afariarekin kafea doan; kafea hartzen ez duenak txupitoa aukeran.

***Trapaia taberna***
Igandetako bazkariarekin kafea opari.

***Ttakun taberna***
Ostegunetan kafea euro batean.

***Zatozte bakailudenda***
Astelehenetan %5eko deskontua txarkuteriko produktuetan.

***Ganbara taberna***
Garagardo kaña 1,5 euroan bazkideei.

***Inpernupe taberna***
Kafea euro batean bazkideei.

***Otezuri taberna***
Etxeko tartak %10eko deskontuarekin.

***Optika Zumaia***
%10eko deskontua betaurreko eta eguzkitako betaurrekoetan.

***Ukendu parafarmazia***
Baleike txartelarekin %5eko deskontua erosketa guztietan. Ez da bateragarria izango beste deskontu txartelekin.

***Margari frutadenda***
Baleike txartelarekin %10eko deskontua urte osoan.

***Ekin elektrizitatea***
LED lanpara eta papertegiko materialetan %10eko deskontua.

***Iriondo optika***
Haurrengan ikasketa arazoak eta “begi alferra” ekiditeko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua doan.

***D’Ana ileapaindegia***
Ilea garbitzeko produktu ekologikoak eta alergiaren kontrakoak (kolorante eta osagai toxikorik gabeak) %15eko deskontuarekin.

***Upela belardenda***
15 eurotik gorako erosketa eginez gero, 150 gramo zereal opari (kinoa izan ezik). 30 eurotik gorako erosketetan, ezpainetarako margoa opari (aleak agortu arte).

***Yoana ileapaindegia***
Depilazioak %10 merkeago. Hilean behin, bazkideen artean zozketa ilea garbitu eta orraztu debalde egiteko.

***Golden Gate Institute***
Matrikulazioan %20eko deskontua bazkideentzat.

***Ilargi taberna***
Kafeak euro batean.

***La Primavera Pizzeria***
Bazkideentzat etxera eramatea doan.

***Beheko Plaza jatetxea***
Igandetan pintxoa doan.

***A3***
Artikulu guztietan %5eko deskontua.

***Talaipe jatetxea***
Bi lagunentzako hiru mariskada bazkideen artean zozkatzeko.

***Talaia jatetxea***
Ostiraletan afariarekin kafea eta txupitoa doan.

***Artaza kanpin ekologikoa (Urbasa-Lizarra)***
Baleike txartelarekin %10 merkeago.

***Iruitz ileapaindegia***
Asteartetik ostiralera, ilea keratinarekin hidratatzeko tratamendua %25 merkeago. Txanda aurrez hartu behar da.

***Ardantzabide altzariak***
Ispiluak %10 merkeago.

***Aizpurua liburudenda***
Haur eta helduentzako irakurketarako liburuak %5 merkeago.

***Oskarbi kiroldenda***
Arropan %5eko deskontua.

***Txalaparta***
Bazkide txartelarekin produktu guztiak %5 merkeago, merkealdian izan ezik.

***Kuttun***
2014ko abenduaren 31 arte, %5eko deskontua produktu guztietan. Ezingo zaio bestelako deskonturik gehitu.

***Kalari taberna***
Igandean afariak %10 merkeago.

kutturr
lentzeria
erribera kalea tel. 943117936

malaur

Egin zaitez BALEIKEko bazkide
BALEIKE
GERRAKO BOST DESAGERTU AURKITU DITUZTE

Maluta
jatetxea • taberna
oilasko erreak • kazuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERÍA
pizzak
hanburgesak
bokatak...
marina
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

M
MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea
Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569

Nikol taberna
amaiako plaza 943861816

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA KARROZERIAK
Etengabeko garabi zerbitzua
636 867 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)
Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com
Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com

MARGARI fruta-denda
Tel. : 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

"Muagi"
errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia
RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

OSA
BERNIZATUAK
Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea
Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

ETXEGINTZA
OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.
ZARAUTZ - ZUMAIA
www.olidenreformas.com
647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com
Oliden arkitektura
678 075 652
943 143 093

OSKARBI
KIROLAK
Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA ,S.L.
Joxe Mari Korta Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 66 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak
Julio Beobide Ibiltokia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net
Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA
Gosariak
Ogia
Egunkariak
Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

La PrimaVera
pizzeria
943 247 011
www.laprimaverapizzeria.com

# PANELEZ PANEL ZUMAIAKO INDUSTRIA ONDAREAN ZEHAR

Azken urte hauetan turismoak eta orokorrean hirugarren sektoreak indarra hartu badu ere, industria izan da Zumaiaren motor ekonomiko nagusia azken mende eta erdian. Ondare horren inguruko dokumentazio lan eskerga egin ondoren, ZIIZ elkarteak informazio hori gizarteratzeari ekin dio. Horren emaitza da herriko zenbait puntutan jarriko diren panel informatiboak. Haiei jarraiki, ibilaldia egin ahal izango da Zumaiako industrian zehar.







TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: WWW.ZIIZ.EUS

Ardantzabide, Moilaberria eta zaharra, Mendaro marinela eta Etxezarreta, Parolbidea, Narruondo... Gaur egun etxebizitzak, pasealekuak eta parkeak dauden lekuetan, orain ez hamarkada asko enpresa handiak zeuden: Carmelo Unanue, Otto Holke, Yeregui Hermanos, Cementos la Zumayana... Denboran galdu diren izenak dira eta haien oroimena zuri-beltzeko argazki zaharretan gordetzen da. Herriarekin eta herritarrekin lotura zuzena duen ondare hori gordetzeko dokumentazio lanari ekin zion 2009. urtean ZIIZ (Zumaiako Industria-ondarearen Informazioa Zentroa) elkarteak. Bost urte hauetan milaka dokumentu, eskuorri eta argazki berreskuratu dituzte. Informazio hori guztia gizarteratzeko lehen pausoa webgunea (www.ziiz.eus) sortzea izan zen. Orain, erakundeen laguntzarekin, bigarren pausoa emango dute eta ondare horren inguruko panel informatiboak jarriko dituzte enpresa jarduera izan zen lekuetan.

“ZIIZeko kideek eman ziguten ideia. Dokumentazio lan handia egin dute eta webgunea ere badute. Aztertzen ari ginen nola eman lan honen berri herritarrei, eta herriko zenbait lekutan panelak jartzea proposatu zen, informazioa emateko”, dio Miriam Romatet kultura teknikariak. Ideiaren bultzatzailea ZIIZ izan bada ere, Zumaiako Udala eta Euskal Kostaldeko Geoparkea izan dira finantzatu dutenak. “Turismo eta Kultura sailek bat egin dugu ekimen honetan, baita Geoparkeak ere. Herriaren historia kontatu egin behar da, baina ez bakarrik historia zaharra edo handia, baita herritarrek beraiek egindakoa ere. Denak eramaten gintuen hau martxan jartzera”.

Planteamendua ibilbide antzeko zerbait egitea izan dela azaldu du Oihana Artetxek, ZIIZeko kideak. “Bai herrikoentzat, baita kanpotik etorriko direnentzako ere. Kanpotik etortzen dena nik uste dut ez dela konturatuko Zumaia zenbat aldatu den denbora gutxian. Portuko ingurua aldatu da, Arbillagako fabrika bota zuten Amaiako plazan eta garabia Arranplan falta da, Ardantzabideko zonalde osoa ere aldatu da. Oso denbora gutxian industriarekin zerikusia zuen gehiengoa edo behintzat garai bateko industria indartsua desagertu egin da”.

> “Oso denbora gutxian industriarekin zer ikusia zuen gehiengoa desagertu egin da”

Bi metroko altuera eta 80 zentimetroko zabalera duten hamar panel jarriko dira enpresak edo jarduera industriala izandako lekuetan. “Corten altzairuzko oinarri gainean doaz. Pedrok [Etxabe, ZIIZeko koordinatzaileak], Alemanian egon zen batean, ikusi zituen hauen antzekoak eta guk eman nahi genien kutsu industrialerako egokia ikusten genituen”. Bi motatako panelak dira: batzuk zonalde industrialetan jarri direnak eta besteak elementu jakin batzuekin lotutakoak, oraindik mantentzen direnak edo desagertuta daudenak. Totem hauen aurrealdean zonaldeko edo elementuaren garai bateko argazkia joango da eta leku horietan izandako enpresen zerrenda; atzealdean, zonalde horretan izandako industria esanguratsuenen informazioa emango da. Panelak euskaraz eta gaztelaniaz joango dira, baina QR kodeen bidez informazio hori frantsesez eta ingelesez ere irakurri ahal izango da.

Panelak aukeratzeko, aurretik egindako bilketa lanean zentratu direla dio Oihanak. “Gure ikerketa lau sektoretara mugatu da, oraingoz: zementugintza, ontzigintza, motorgintza eta makina-erreminta. Horiek izan dira Zumaiako lau motor industrial nagusiak. Paneletan sektore horien barruan dagoeneko desagertuta dauden enpresak sartu ditugu. Lau sektore horietatik kanpo desagertutako enpresak ere badaude: aroztegiak, kontserbagintzakoak... Horiek hurrengo fase baterako utziko ditugu”.

Kokapenari dagokionez, Moilaberriko ingurunean kontzentratuko dira panel gehien: lau guztira. “Moilako tren geltokiaren inguruan sarrerako panel bat jarriko da, beste panel guztien kokapenarekin eta ZIIZen inguruko informazioarekin. Ibilbidearen aurkibide baten antzekoa da. Etxezarretan Otto Holke eta ingurune hartan zeuden enpresei buruzkoa joango da, Moilan portuari buruzkoa eta Mendaro marinelan Cementos Zumaya S.A. enpresak izan zuen biltegiarena”. Arranplan Arbustaingo garabiari buruzko panela jarriko da, “horrek bere garrantzia izan zuelako motorren industrian; hari esker dinamizatu zen herrian motorgintzako industria”. Parolbidean ontzigintzari buruzkoa joango da, Ondartxon Arbillagako jute fabrikari buruzkoa eta Ardantzabiden Carmelo Unanue motor fabrikari dagokiona. Azken biak Estazio auzoan (Urpemak, Egurko...) eta Narruondon (Cementos La Zumayana eta Cementos San José) jarriko dira.

Herriko beste puntu batzuetan ere enpresak izan baziren ere, oraingoz panelik ez jartzea erabaki dute. “Axular inguruan bazeuden enpresa batzuk, baina lau sektore horietatik kanpo zeuden. Dudetan egon ginen, baina oraingoz ez dugu jarri. Badaude beste leku batzuk (Basusta, Gorostiaga, Oikia...), baina oinez erraz egin daitekeen panelez paneleko ibilbidea egiten saiatu gara”.

Izan ere, industria ondarearen inguruko bisita gidatuak edo ibilaldiak egiteko asmoa erakutsi du Udalak. Urtean zehar egiten diren bisita gidatuen eskaintzan ere bere lekua izango du industria ondarearen ibilaldiak. “Arlo desberdinetan egiten dira bisitak herrian: *Zumaia ezagutuz* izenekoa dago ikasleentzat eta, bestalde, turistei eta bisitariei eskaintzen zaizkienak ere badaude. Industriari buruzko hau ere kontuan hartuko da bi horietan”, argitu du Miriam Romatetek. “Geologia eta naturari buruzko bisitak badaude eta flyschak, hasieran, eta Biotopoak eta Geoparkeak, ondoren, Zumaia mapan jarri dute. Bestalde, Urola Kosta Udal Elkarteak itsas ondarearen inguruko kanpaina bat ere jarri du martxan hitzaldi ibiltarien bitartez eta Zumaia hor sartuta dago. “Aztertu nahi dugu nola iragarri azken ekimen hori. Nahi ez duguna da hainbat eskaintza desberdin izatea; hari bati jarraitu nahi diogu horrek guztiak logika izan dezan”.

# “Ez gara kontziente industriari esker garela gaur garena”

Historiako eta antropologiako ikasketak egin ditu Oihana Artetxek eta orain gutxira arte arkeologo lanak egin ditu. ZIIZeko kide da sorreratik eta mundu horretan dabilen jende gehiena bezala *suhiltzaile lanetan* ari dela dio, “geratzen den gutxi hori mantendu eta dokumentatzen eta gordetzen saiatzen”. Elkartearen lana “nolabaiteko kontzientziazio kolektiboa” lortzea dela uste du, “herri mailan hasita, ze guk geuk ez badugu baloratzen zer dugun, kanpotik datorren bati eskatzea zaila da. Industriak garrantzi handia izan du gaur egungo Zumaia eraikitzeko eta herritarrek hori jakin beharra daukate”.

Memoria historikoaren kontuan, Zumaia eta, oro har, Euskal Herria oso atzetik doala uste du. Damu da bere garaian Arbustaingo garabia eta Arbillagako fabrika zaindu ez zituztelako. “Industria ondarea zer den ez dakigu baloratzen. Orain urte batzuk Buenos Airesen egon nintzen, eta hango portua ez da lehengo portu industriala edo merkantzietakoa, baina hango almazenak eta eraikinak mantentzen dira eta beste erabilera bat eman zaie. Hemen eraikina aprobetxatu beharrean, bota egiten da, eta hori egiten jarraitzen dugu. Egia da dena ezin dela babestu edo mantendu, horren kontziente gara, baina batzuetan aukerak badaude”.

Bilbo jartzen du Oihanak ondarearekiko errespetu faltaren adibide bezala. “Hango enpresetako ezer ez da mantendu kasik. Han *tabla rasa* egin zuten. Asko irabazi duela estetikoki? Bai, oso polita geratu da Bilbo. Baina hobetu zitekeen hori zenbait enpresa enblematiko mantenduta eta beste erabilera eta bizipen batzuk emanda. Gaur egun mila adibide daude. Erresuma Batuan, Alemanian ikusgarria da, Ameriketan. Enpresa batzuetan makinaria guztia mantendu dute, martxan jarri eta prozesu guztia esplikatzeko, bai adituen eskutik, baina baita bertan lan egiten zutenen eskutik ere. Hori hemen ez da landu”.

Azken adibidea Donostiako sarreran topatu duela dio, Añorgako Cementos Rezolan. “Zementu fabrika zuen, baina baita langileen etxeak, ekonomatoa eta enkargatuentzako etxetxo independenteak. Errepidearen bestaldean zinea eta futbol zelaia zeuden. Rezolak langile kolonia zuen eta apenas geratzen diren halakoak. Ordizian, agian. Aurrekoan aurretik pasa nintzen eta harrituta geratu nintzen: fabrika han dago, museoa egin dute aurrean, baina, eta hau da paradoxikoa, zuten museorik onena bota egin zuten: langileen etxeak, ekonomatoa, berez balio handiena zuen hori guztia bota egin dute eta zementuaren inguruko museoa egin dute. Oraindik horrela jarraitzen dugu”.

Kontrako adibideak ere badaudela dio. “Gallarta inguruan Zugaztieta dago, eta han mantendu egin da, elkarte bat dagoelako eta mugitu egin zirelako”.

Estimu gutxi horren atzean kontu sentimentalak daudela uste du historialariak. “Jendeak fabrikak lan egiteko leku bezala ikusten ditu, sufrimenduko eta izerdia botatzeko leku bezala. Hori oraindik oso barneratuta dugu eta beste balio batzuk ematea eragozten du. Ez gara kontziente ondare horri esker garela gaur egun garena eta industria hori gure iraganaren parte dela”.




ARNAITZ RUBIO APREA

Rosi Garbiketak
Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa
Basadi, 3-A tel. 943 016 353

Talaia
taberna • jatetxea
Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

TALAI-PE
jatetxea-erretegia
Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan

Trapaia Taberna
Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA
Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Saltxitxak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran
Ondartxo plaza, 4 behea · Tel. 943 573 905

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria
Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

UPELA PARABOTIKA BELARDENDA
✔ Sendagai naturalak.
✔ Osteopatia eta masajeak.
✔ Naturista, dietetika eta elikadura
Upela plaza, 9
943 537 911
upelabelardenda@hotmail.com

yoana ileapaindegia
Amaia plaza, 2 behea
943 143 278

XUMAI KIROLAK
running eta trail
xumaikirolak
tel. 943 506 471 Basadi auzategia, 2B, behea 6 xumai_10@hotmail.com

Zalla
• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

ZATOZTE
zatozte.bakailaudenda@gmail.com
Juan Belmonte 4 behea 20750 Zumaia

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@euskalnet.net

Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia
Alai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.
José Rey Alfaro
Gerente
Santixo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiamotor@telefonica.net

EDU
ZUMAIAKO OPTIKA
ESKERRIK ASKO
25 URTE ZUEKIN
%25 DESKONTUAK
25 urtez gure ondoan zaudelako.
Txomin Agirre 6, 20750
T 943 143 057
www.eduoptika.com




## “Erakusketa eta Narruondo”

Bost urtez informazio bilketan aritu ondoren, dibulgazioan dihardute orain ZII-Zeko kideek. “Kontziente gara orain arte egin duguna lehen fasea izan dela eta orain material horrekin mugitzen hasi nahi dugu. Hitzaldiak eman ziren bere garaian eta bisita bidatuak egitea ere pentsatu da”, dio Oihana Artetxek. Hurrengo pausoa erakusketa bat muntatzea izango da. “Zumaiako industriaren ingurukoa izango da, eta dokumentu eta argazkiez gain, fabriketako materiala ere erakutsi nahiko genuke. Hori da dugun hutsune handienetako bat, hemengo enpresetako materialik ez dugula. Lastima da ez aurkitu izana, eta oso zaila izango da ia denak txatarretan amaituko zuten eta”.

Bigarren fasean aipatutako lau sektoreetatik at zeuden enpresen informazioa biltzen hasiko dira, baina aurretik Narruondon dauden zementu fabrika zaharrekin “zerbait” egin nahi dute. Auzo horretan zeuden zementu fabriken arrastoak Gipuzkoan dauden bakarrenetakoak direla dio Oihanak. “Zumaiako industriaren garaiko motor garrantzitsuena XIX. mendeko bigarren erditik aurrera zementugintza izan zen eta zonalde hau oso garrantzitsua izan zen. Portuaren garapenerako ere oso garrantzitsua izan zen zementua. *Zumaya* izeneko zementu mota bat ere izan zen; hemengo baliabide geologikoek uretan fraguatzeko zementu oso egokia sortzeko aukera ematen zuten. Pena da Narruondon hori edukita ez saiatzea, behintzat, zerbait egiten. Babesteko pausoak ematea, behintzat, geratzen diren arrasto bakarrak dira eta”.


**Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?**

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.
Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua.
Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua.
Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.
Interneten bereizten gaituen puntua.
Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.
Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.
Anima zaitez eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago **www.domeinuak.eus** webgunean

**Hemen duzu zure puntu berria**

.eus
gure domeinua




Unai **GIJARRO**

# Talaipe

Doinua: “Mutil koxkor bat itsuaurreko”

**1.**

Paolbidean abiatuta
itsasoaren ertzean
parrilla usaiak salatzen zaitu
bertara inguratzean
berdin udako bero goxoan
berdin neguko hotzean
aitortu behar sentitu gera
geundela geure etxean
zuen atean barrura sartu
izan geran bakoitzean

**2.**

Arrain ederrik nahi baldin bada
bertara joanik bila
marisko eta gainontzekoak
gainera tratu hurbila
lanaren bidez lortu dezute
hain emaitza biribila
ta sekretu bat ez al da izango
nahiz egon litezkeen mila
biak hain hurre edukitzea
itsasoa ta parrilla

**3.**

Talaipe utzi behar dezute
hori da oraingo plana
neke gabea ez baita izan
hainbeste urteko lana
horra ba gure bertso menua
esker onez zuengana
nola dastatzen segiko degun
hor probatutako dana
gure oroimenak gordeko baitu
zuekin egon izana



ANDER HORMAZURI

# URTARRILA

## DEIALDIAK

**Urtarrilak 8 arte**
Forondako ikastaroak izen emateak. Info+ Alondegian 943-861056

**Urtarrilak 8 arte**
Inauteritako kartel lehiaketa. Info+ Alondegian 943-861056

**Urtarrilak 17 eta 18**
Alondegian, Zumaian eskuz esku 2. eskuko azoka. Produktuak Algorrin jasoko dira abenduak 26-urtarrilak 15. 943 14 31 00 / info@algorri.eu

## ERAKUSKETAK

**Abenduak 26-urtarrilak 6** ERESOINKA 1937-1939– Erkibe kultur elkartea

**Urtarrilak 27-otsailak 15**
IRANZU ANTONA

## URTARRILA

**2, ostirala**
19:00 Aita Marin, Xenpelar dokumentala, Eneko Dorronsoro zuzendariaren aurkezpenarekin, Bertso Eskolak antolatuta

**3, larunbata**
20:00 Itzurun tabernan, kontzertua: Jon Gurrutxaga Duo, Hitz Lauz disko berria aurkezten

**4, igandea**
11:00-13:00 Torreberrin, haurrentzat tailerrak, Txiribuelta elkarteak antolatuta
0-1 urte Masajea eta Altxorraren kutxa // 2-6 urte Sukaldaritza, Eskulanak eta Dantza
18:30 Errege Magoentzat eskutitzak jasotzea

**5, astelehena**
18:00 Errege Kabalgata

**9, ostirala**
19:30 Forondan, Gune elkarteak antolatutako meditazio saioa

**15, osteguna**
22:00 Aita Marin zine forum: Locke

17, larunbata eta 18, igandea
10:00-14:00 eta 16:00-19:00, Alondegia, Zumaian eskuz esku 2. eskuko azoka. Produktuak Algorrin jasoko dira 943 14 31 00

**18, igandea**
12:00 Aita Marin, haurrentzat antzerkia: Erpurutxo Teatro Paraiso taldearen eskutik

**22, osteguna**
18:30 Oxford aretoan, Barreterapia saioa

**23, ostirala**
19:30 Forondan, Josean Manzanosekin solasaldia Gunek antolatuta: Zugan, un proyecto educativo global y sistemático para educar la Interioridad en niños y jóvenes
22:00 Aita Marin, antzerkia: Dejabu taldearen Arrastoak

**29, osteguna**
22:00 Aita Marin zine forum: Magical Girl

**30, ostirala**
23:00 Ganbara tabernan bakarrizketa: Alex Rabanal




LOCKE

**15, osteguna**
22:00 Aita Marin zine forum






Zure bizitzako bidaiarako... gu bidelagun

Maria eta Jose
IKASTETXEA